

Mahaingurua

Hizpide

Gaur egun, inoiz ez bezala, etengabe ari zaie eskatzen heziketa-sistemei euren zerbitzuak gizartearen beharretara egokitzeko ahalmena. Baita helduei euskara irakasten dieten euskaltegiei ere, noski. Eta testuinguru horretan kokatu behar da, hain zuzen, helduen euskalduntze-alfabetatzean HABEk abian jarri duen berrikuntza kurrikularra, "aurreko esperientziaren gainean eraiki beharreko egitasmo gisa", beti ere berau osatu eta aberasteko; eta ez, inondik inora, iraganean eginikoa arbuiaitzeko. Tentuz eta patxadaz urratu beharreko bidea da ezbairik gabe. Iritziak eta eskarmentuak oro lagungarri direlakoan mahai inguru bat antolatu zuen HABEk Udako Ikastaroen baitan gaiaren inguruko hainbat galderaren haritik eztabaida egiteko. Hona hemen parte hartzaileak: Jokin Azkue (HABE); Joanba Bergara (HABE) moderatzailea; Juxto Egaña (HABE); Joxin Etxezarreta (Deustuko Unibertsitateko Euskal Irakaslegoa); Joseba Ezeiza (BERTAN); Asis Iriondo (IKA); Jokin Nazabal (Gipuzkoako Udal-euskaltegiak); Alex Vadillo (AEK).

Hona hemen moderatzaileak egindako galderak:

- 1 Kurrikulua berritzeko proposamenak elkarrekin lotura estua duten printzipio orokor batzuetan du oinarria. Horien artean ikaskuntzako oinarri soziokulturalak lirateke azpimarratzekoak. Zer da zuentzat osagai hori? Zer lantzen duzue esparru horretan? Eta nola? Zeintzuk dira hutsune nagusiak?
- 2 Malgua izan beharko luke euskalduntze-alfabetatzean helduei eskaintzen diegun zerbitzuak. Malgutasunez jokatzen dugu taldeak osatzeko orduan? Aurreikusten al dugu, halaber, ikasleen aldeei nola egin aurre? Eta ikasprozesua aurrera joan ahala berez sortuko direnei? Eta azkarra-go ikasi nahi duten ikasleen eskakizunei? Eta ikasleek izango dituzten hutsuneei? Zer egiten da arlo honetan? Eta zeintzuk dira zailtasun nagusiak?
- 3 Nola egiten duzue ikaskuntzaren diseinua? Zeintzuk dira osagaiak? Zeintzuk dira osagaien arteko loturak? Eta denboralizazioaren ikuspegitik begiratuta? Zeintzuk dira arlo honetako zailtasun nagusiak?
- 4 Langaien zeregina berrikuntza kurrikularrean. Batzuen ustez, ikasprozesu osoa hornitu beharko genuke langai egokiz. Beste batzuek, berriz,

euskaltegien autonomia murriztuko zutela diote. Nola ikusten duzue auzi hori? Zeintzuk dira arlo honetan ditugun gabezia nagusiak?

5 Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua lantzen aritu diren saio-euskaltegiei zuzendutako galdera. Zer erakutsi dizue esperientziak? Azaldu, alde batetik, alde onak; eta korapilo nagusiak, bestetik.

Lehenengo galderari erantzunez hauxe esan zuten partaideek:

Joseba Ezeiza

Euskaltegi batzuek historia luzea dute, beste batzuek laburragoa, baina badugu zerbait berdintzen gaituena: alderdi soziokulturaletikiko kezka. Izan ere, gure sareko euskaltegirik gehienak elkarrekin kulturalak dira edota elkarrekin kulturalen eremuan sortuak.

Dena den, alderdi soziokulturalari heltzean, eta nolabaiteko esperientzia badagoen arren, berrikuntza kurrikularrak alderdi horri eragitea eskatzen duela ikusten dugu. Euskaltegiaren funtzio soziokulturala ez da beti ikasgelako lanarekin uztartu. Eta, berrikuntza kurrikularra berrikuntza den heinean, agian orain da garaia lotura horiek sortzeko, eta bide batez, gure proiektzio sozial eta kultural hori berraztertu eta birformulatzeko.

Proiektu guztiak diferenteak dira berez, eta pentsatzen dut berrikuntza-aren aurrean ere erantzunak diferenteak izango direla, baina badago irizpide bat ikasgelaren alderdi kultural horri eragiteko denoi baliagarri izango zaiguna eta uste dut horretan guztiok bat etorriko garela, hau da, euskalduntze-prozesua ikustea euskaldunon eta erdaldunon komunitateak elkarrengana biltzen dituen prozesu integratzaile gisa. Horrek esan nahi du, batetik, euskalduntzen ari den pertsonak bere prozesu propioa daramala, are aurreiritzi edo kontrako iritzia ere izan ditzakeela, eta, bestetik, prozesu horren bitartez euskaldunen komunitatean sartuko dela nolabait. Eta euskaldunen komunitateari on egin beharko lioke prozesu horrek. Alegia, euskaldun ez diren horiek euskalduntzen baldin baditugu eta horrek euskarari kalte egiten badio beren jarrerengatik edo darabilten euskararen kalitatea txarra delako, ez dugu uste asmatuko genukeenik.

Beraz, gure ustez, osagai soziokultural hori kurrikulura ekarri behar da eta helburuetan txertatu eta gutxienezko helburu hau ezarri: gure ikasleak euskaraz gogo onez aritzea aukera duten bakoitzean. Eta hori kurrikuluan txerta daiteke. Helburu zehatzagotara eramane eta ikasgelaren bitartez bultzatu daiteke. Eta horrek zenbait aldaketa ekarriko du berarekin noski. Euskal kulturgintza eta egoera sozialekin zerikusia duten gaiak ohartukiago eramane beharko ditugu ikasgelara zein gai bai eta zein ez... Zama kultural nabarmena duten hizkuntz adierazleei zein tarte eskaini, literaturari, esapidetari, esatera zaharrei... ditugu, ikasle askorentzat euskaltegia eta euskaltegiaren ingurua baita, hasieran behintzat, euskaraz bizitzeko toki bakarra. Gizartean sortzen diren euskararen inguruko jardura soziokulturalarekin bat egin beharko dugu. Eta, nahiz eta arlo honetan atzetik ere esperientzia badagoen, aukera ona izan daiteke gaia berraztertu eta orain arteko planteamendua berritzeko.

AEKtik ikusita, ez dago zalantzarik kulturak bere biziko pisua duela hizkuntza bat ikastekoan. Funtsezkoa dela pentsatzen dugu. Baina, era berean, arazo hori ez da dirudien bezain larria. Kulturaren inguruko ikuspegi ezberdinak egon badaude. Eta, kulturaren definizioak ematen hasiko bagina, elkarren osagarri diren hiru errealitate ezberdinekin egingo genuke topo. Alde batetik, *kultura elitista* deitu izan zaiona egongo litzateke. Horra hor, literatura, zinema... Beste aldetik, kultura ia-ia etnografikoa dugu: ohiturak, folklorea eta abarrekoak. Eta ezin uka daiteke beren lekua behar dutela gure klaseetan, baina lekutxo bat besterik ez. Ez baitugu uste gure klaseek literaturaren inguruko klase magistralak izan behar dutenik, ezta gutxiagorik ere. Baina bai ikusten dugula erreferente kultural gutxieneko batzuk eskaini behar dizkiegula ikasleei.

Badago kulturaren inguruan beste hirugarren definizio bat, bai, guri asko gustatzen zaiguna printzipioz eta nolabait iaz euskararen unibertsoaz egin ziren jardunaldietan emandakoa: euskal kultura da euskal komunitateak egunero sortu, eraiki eta berreraiki egiten duen errealitatea. Eta ildo horretatik hartzen dugu guk kulturaren ikuspegia. Orduan, kulturaren ikuspegi horiek guztiak gure klaseetan txertatzeko zer egiten dugun? Hemen behin baino gehiagotan materiala aipatu da. Material errealak erabiliz gero, kultura hortxe dago. Bestalde, euskalduntze-prozesua sozializazio-prozesua ere bada. Hortxe daude hiztunak, euskal komunitatea... Eta ikasleak guregana etortzen direnean neurri batean edo bestean komunitate horretako kide izan nahi dute. Gure ustez, sozializazio-prozesu hori euskaltegietatik erraztu egin behar zaie ikasleei. Eta, euskaltegia, klasea eta baita irakaslea bera ere izango lirateke prozesu horretan sozializatzailerik.

AEKn duela hamar urte ekintza bidezko ikaskuntza terminoaz definitzen genuena eta gero kulturagintza izena ere hartu zuena aitatu dut. Oso sinplea da: bideak sortu euskara-hiztun komunitatearen eta ikastaldearen arteko harremanak sustatzeko, ez besterik. Kalea bera izan daiteke, ikasgelara zerbait kontatzera datorren euskalduna izan daiteke... Askotan esaten dugu materiala behar dugula, entzun-ariketa erreala eta bizibiziak behar ditugula. Ba, kalean ditugun pertsonak, euskara-hiztunak ikasgelaratzea bide bat izan daitezke. Eta, alderantzizkoa, gelatik kalera-koa, hau da, geure ikasleak klasean trebatu baldin baditugu komunikazio-eginkizun jakin batean, zergatik ez diegu eskatuko hori bera kalean egin dezatela, beti ere euskaltegiaren babespean eta beti ere programazioan txertatuta? Gure ustez, modu horretan nahiko ondo bidera daiteke kulturaren ikuspegia. Esperientzia asko egin dira, batzuk onak, ez hain onak beste batzuk eta oso onak beste zenbait. Denetik egon da.

Beno, ez ditugu, orain arte behintzat, kulturazko edukiak programan sartu, besteak beste, iruditzen zaigulako hizkuntzak bere baitan daramala kultura eta, ondorioz, hizkuntza ikasten ari dena kultura ere eskuratzen ari dela. Egia da materialetan, erreferentzi puntuetan, gai eta abarretan, halako kezka bat izan dugula geure zentroan kulturarekiko. Pauso batzuk behintzat egin dira materiala kulturaren ikuspegitik ere gaurkotuz. Oinarritzko dokumentuan oso ilun azaltzen da puntu hori, oso ilun eta, gainera, arlo

asko ukitzen ditu. Aurkeztu zitzaigunean, puntu batean behintzat ez gentozen bat. Hau da: bi komunitate daude, integrazio bat behar da, eta Euskal Herrian bi hizkuntza arrotz eta bat bertakoa daudela... Gure gizarte honetan euskararen rola eta abar hobetu dira, besteak beste, elebitasuna goraiatu dugulako, kanpainak egin direlako. Gure ustez, ezin esan dakieke ikasleei beren hizkuntza, gaztelania, arrotza dela eta bertakoa euskara denik.

Jokin Nazabal

Gure ustez, Alexek esandakoaren haritik, ez ditugu gai soziokulturalak eduki kurrikular bihurtu behar, baina bai aurreikusi behar ditugula gure irakaskuntzan. Eta Alexek azaldu bezala egiten dugu guk ere geure euskaltegian. Baina badugu beste kezka bat. Esan da ikasleak ingurune erdaldunean daudela, gurea ez da hain erdalduna, baina hor kezka bat dugu, betiko galdera gure euskaltegian behintzat: zein da horrelakoetan euskaltegiaren egitekoa? Nola jarri ikasleak harremanetan euskal hiztunekin? Klasean landutakoa ez da aski eta hor hutsune bat dago, ikasleak euskara dakitenekin harremanetan jartzen direnean gaztelaniaz egiten dute. Eta ez dugu horretarako irtenbiderik aurkitu. Nola bideratu harreman horiek euskararen bidez?, nola ekarri ikasle horiek euskarara? nola sarrarazi euskal kulturara? Erantzuna bilatzen saiatu izan gara. Kanpo ekintza eta horrelakoak egin ditugu. Ikusten dugu, hala ere, ez dela lortzen.

Asis Iriondo

Jokinek aipatu digu eurek duten arazoa eskolatik kanporako jauzi hori nola eman dela. Ba, pentsa hori inguru erdaldunetan, gure kasuan, Gasteizen. Orduan normalean guk geuk antolatzen ditugu kanpo ekintzak. Baina hemen azaldutako beste kezkekin batera Joanbak egindako galdera bati erreparatu nahi nioke. Zein dira hutsune nagusiak? Zer egin taldeetan?, 12, 13, 14 ikasle dituzu, batzuk konbentzitura eramaten ditugu saio horietara. Euskaltegira etorri eta badakite eskolaz kanpoko ekintza horiek ezinbestekoak direla. Baina, badira beste asko agertzen ez direnak, euskaltegira bi orduko eskoletara joan eta kanpoko eginkizunen beharrik inon ikusten ez dutenak. Erronka bat dugu hor.

Juxto Egaña

Nik esan nahi nuke dokumentuan agertzen den ingurune soziokulturalari buruzko txostenak idatzi bezain pronto edo handik pixka batera izan zituela bere kritika edo aldatu beharrak; egia esan, onartzen ditugu. Izan ere, alderdi soziokulturalaren gaiak berez merezi du tentu eta arreta handia. Orduan, administrazioaren aldetik ez da bide zuzen bat hobetsi. Egiteke utzi da eta hemen ikusten dugunez, sare batetik eta bestetik sortzen diren materialek erabat ikuspegi diferenteak dituzte, irakasleak eta irakasle horiek dituzten ikasleen inguruneak ere diferenteak direlako. Hortaz, bada, ez dut uste hau bai eta hau ez esan daitekeenik. Malgu jokatu behar dela iruditzen zait, printzipioz behintzat. Dena den, oraingoz dokumentua berritzear dago zenbait puntu aldatu eta argitzeko eta hau ere aldatzekotan dagoela esango nuke.

Patxi Telletxea (Iruñeko)

Irakasleak izateaz gain gauza asko izan behar dugula argi dago. Ikastera etortzen den ikasle horri nolabait euskara erabilarazi eta non eta nola era-

**Hizkuntza eskola
ofiziala)
entzuleen artetik**

bil dezakeen erakutsi ere egin behar zaio eta hori kurrikuluan sartu behar da. Esate baterako, aurtun gure hizkuntz eskolan ataza txiki bat burutu dugu. Helburua zen alde zaharreko zein tabernatan dakiten euskaraz eza-gutzea. Beraz, klasetik bidali eta aurkitu zuten 30 zeudela eta horietan guztietan zegoela euskaraz zekien norbait. Geu ere harritu egin ginen. Beraz, benetako arazoa soziolinguistikoa da, diglosiarekin zerikusia duena, jakina. Ikasleak badaki gaztelaniaz egin dezakeela. Euskal hiztun sentitu beharko luke, nire ustez, eta oso erraza da erdal hiztun sentitzea, halaxe da-eta. Eta lotsaren aurrean beti gaztelaniara joko du. Ez dakit nola egin beharko dugun, ez dakit... *derrigortu* hitza gogor samarra da trikimailu edo trukoak bilatu beharko ditugu.

Alex Vadillo

Azken asteotan, euskaltegi bateko eta besteko irakasleekin hitz egin eta hasi naiz konturatzen. Orain arte ez nuen sumatzen. Ikasleez hitz egiten dugunean ikasle-tipologia ezberdinak daude. Inpresio hori hartzen ari naiz azkenaldi honetan. Nik ere inguru erdaldun batean lan egiten dut, Gasteizen. Eta, ikasleen motibazioei begiratzen badiezu, hiru motibazio-mota daudela esango nuke. Motibazio integratzaile delakoari motibazio afektibo deituko nioke nik: euskalduna izan nahi dut eta ez dut euskaraz norekin hitz egin “nik euskalduna izan nahi dut” zerbait afektiboa da. Bigarren motibazioa komunikatiboa izan daiteke: ikusten dut nire inguruan jende euskalduna badagoela, beraiekin komunikatu nahi dut eta horretarako ikasten dut. Eta, hirugarrena, pragmatikoa: lanpostua lortu nahi dut, badakit euskara ez dela gauza bakarra baina kurrikulurako ondo etortzen da. Hiru motibazio horiek horrela ezberdintzea sinplekeria da, elkarrekin nahasian ager daitezkeelako, noski. Baina, motibazio integratzailea izango da ziurrenik eraginkorrena. Gaur egun, leku erdaldunetan, Gasteizen, hori gertatzen zaigu, nabarmenagoa dela afektiboa. Euskaltegira datorrenak euskalduna izan nahi du besterik gabe, nahiz eta norekin hitz egin ez izan. Lan bat lortzeko euskara ikasi? Tira, ondo etorriko zaio eta estimatzen du. Ez da gutxi. Baina, gaur egun ez dago gizar-tean lan bat lortzeko euskara ikastea behar beharrezkoa dela esateko adinako presiorik. Ikasleak motibazio afektiborik baldin badauka gure lanak izan beharko luke esatea gutxienez euskaraz non eta norekin hitz egin dezakeen eta bilatzen laguntzea.

Joseba Ezeiza

Nik beste zerbait gaineratu nahi nuke puntu honetan. Agian ikasle asko hurbiltzen dira euskaltegietara, ez arrazoi afektiboengatik bestelakoengatik baizik. Gutxi jartzen dituzte benetako oztopoak beste pauso bat ematekoan laguntza eskainiz gero. Alegia, askori gustatuko litzaioke ingurune euskaldunetan eroso sentitzea ez era abstraktuan euskaldun sentitzen direlako, hori ere estimatzen dute, baizik eta nahiko luketelako okindegira joan eta, okina euskalduna baldin bada, harekin euskaraz mintzatu. Baina, agian ez dute behar hainbateko konfiantzarik bere buruan. Agian ez dute bere irudia hiztun bezala ondo landu. Agian ez zaio behar beste erraztu komunikazio-gune horietan aritzeko bidea... Eta euskaldun zaharrak ere baditugu euskaltegian. Euskaldun zaharrekin ere egin behar dugu lan. Horregatik esaten nuen hasieran bi komunitateak

elkarrenganatzeko lan egin beharra dagoela, ez gatazka, liskarraren zentzuan, dagoelako baizik eta hesi batzuk egon daitezkeelako alde bietatik. Eta agian ez gara saiatu horiek hausten beste komunitateetan hainbat. Zerbait egin behar da. Lagundu egin behar zaie nolabait ikasleei beraiek bakarrik ez baitute asmatzen oztopo horiek denak gaingiditzen. Uste dut askotan gehiegixto eskatzen diegula eta gutxi eskaini alderdi horretan.

Juxto Egaña

Lehen esandakoaz gain, mereziko luke, nire ustez zenbait mintegitan azaldutako gaia aipatzea. Ikaslea euskarazko komunikabideekin harremanetan jartzea da. ETB hor dago, baina zer den ere ez dakite, zein programa dauden, nork hitz egiten duen, zein gai dauden... Orduan, bide bat izan daiteke material batzuk propio sortu komunikabideekiko lotura hori sortzeko eta azken batean erabilera sustatu kulturara hurbiltzeko.

Joxin Etxezarreta

Nik uste dut hori, Juxto, gutxienekoa dela, esan nahi dut gure ikasleak komunikabideen aurrean jarri, eta aurkeztu egiten dizkiogula, aldizkariak, literatura... euskal kulturaren aurrean jarri eta aurkeztu egiten diogu. Benetako materialak erabili behar ditugula aipatzen denean, hori guztia ari gara esaten nire ustez. Baita taberna edo denda euskaldunen aurkibide eta gidak ere badituzte eskura. Baina nik hor nire dudak ditut. Iruñera bizitzera joango banintz ez dut uste euskaldunen gida baten beharrik izango nukeenik neure euskalduntasuna eta neure jarrerai eusteko, nola edo hala moldatuko nintzateke okindegiko gizona euskalduna den ala ez den jakiteko.

**Nora Palmitano
(AEK) entzuleen
artetik**

Ba, esandakoaren arabera uste dut kontzeptu batzuk nahastu egiten direla. Kurrikuluan gaizki irakurri ez badut, helburua euskaldun osoa ateratzea da. Eta hemen ematen du helburua euskara ikastea dela. Bestalde, ez dago argi euskalduntze-prozesu hori norbanakoarena edo soziala den.

Joxin Etxezarreta

Bai, euskaldun osoa jartzen duela uste dut. Baina ez dakigu “osoa” horrekin zer esan nahi den. Hemen Jokin bera dago. Ez dakit lekuko izango zen 95-96an hitzarmen-markoak negoziatzen ibili ginenean. Bazen puntu bat euskaltegien emaitzak aztertzekean adierazleetako bat izango zela euskaldun osoaren ratioa. Guk esan genuen “osoa” hori kendu eta ezin ote zen jarri euskaldunen ratioa, edo euskaltegitik ateratzen ziren euskaldunen ratioa. Zergatik? “Osoa” horrek zer esan nahi duen ez dakigulako. Dokumentuak pixka bat lehenago dioen “hiztun jator eta osoa”rekin beste hainbeste gertatzen zaigu. Ez dakigu jatortasuna eta osotasuna neurtzen. Gaitasun komunikatiboa edo hizkuntza gaitasuna neurtzen eta objektibizatzeak lanak ematen ditu. Hala ere, egin daitekeela uste dugu. Baina “osotasuna” eta “jatortasuna”...

Jokin Nazabal

Hemen bi helburu diferente egon daitezke, gure helburua nolabait ikasleak euskaraz bizitzeko kapaz egitea da. Baina gero eta gehiago etortzen zaizkigu horretarako premiarik ez duten ikasleak. Beste helburu jakin bat

dute. Lanpostu bat lortzea... Azaldua da jadanik horrek guztiak erabilera-
rekin duen lotura. Hala ere, ikaslearen beraren interesak eta beharrak ere
kontuan izan behar ditugula uste dut.

Joseba Ezeiza

Hasieran aipatu dut prozesu hau bi alderditatik ikusten dugula. Prozesua
pertsonala da eta guk uste dugu hori ezin dela ahaztu. Badaude, bestalde,
elementu batzuk zaindu eta aztertu beharrekoak Jokinek esan duen beza-
la. Bestetik, egia da prozesua soziala dela, oso zabala gainera, garaian
garaikoa. Eta bost urteren barruan beste momentu batean egongo gara eta
abar. Orduan helburua izango litzateke biak uztartzea, Eta, ikasle hori
soilik lanarengatik edo euskaltegiatzen bada... Ba, tira, hasieran bede-
ren. Hasteko modu bat bada. Baina bere beharrei edo eskakizunei muga
bat jarri beharko diegu. Bere helburuak izango ditu, baina kurrikuluare-
nak, gizartearenak, euskaltegiarenak ere kontuan hartzekoak dira: hau
emango dizugu, baina gutxieneko hau eskatuko zaizu. Orduan kontua da
gutxieneko horren tamaina zein den zehaztea; eta, dudarik gabe, eran-
tzun diferenteak egongo dira tamaina zehaztekoan, planteamendu dife-
renteak daudelako. Gainera iruditzen zait hasieran gaudela, oraindik
euskalduntze-prozesuak oso historia laburra du. Ikusiko dugu zer ematen
duen etorkizunean.

Jokin Azkue

Joxinek komentatu duenaren ildotik, bai argitu nahiko nukeela gai hau.
Nire ustez, euskararen erabilera ahalik eta eremu gehienetara zabaldu
behar dugu. Eta hori askotan erraza da esaten eta zaila egiten, euskalte-
gian bertan are gehiago. Baina bai egia dela euskara hobera doala, eremu
berriak irabazten ari dira, informatikan, lan-munduan, sektore sozioeko-
nomikoan, administrazioan, irakaskuntzan... Egia da erabilera-plan
gehienak, normala denez, gune euskaldunenetan ari direla burutzen. Eta,
hainbat euskaltegi ere ari dira egiteko horietan parte hartzen. Atzo edo
komentatu nuen horrek saiakera bereziak eskatzen dituela. Zailtasun
handiak sortzen dira taldeak eratzerakoan. Nik uste dut horretan ere
denok, HABEk berak ere, esfortzu bat egin behar dugula hau jorratzeko.
nahaspila nahikoa dugu, baina, nire ustez, euskaltegiek ere ahaletin
bereziak egin dituzte eremu berri horietan eta administrazioak malgu
jokatu behar du.

Lehengora itzulita, zer da hiztun gaitua, osoa, euskaldun osoa eta jato-
rra? Jatorra izatearena beste testuinguru batean hartu behar dela uste dut
nik. Ikasle bakoitzak bere ikasteko espektatibak dauzka ezta? Esaten bal-
din badu “nik orain ez daukat zereginik eta euskara ikasiko dut”, eta lana
aurkitzen baldin badu euskara ikasteari uzten badio... Ba nik uste dut
gogotik saiatu beharko dugula ikasleari adorea ematen. Kurrikuluak ere
ikaskuntza motibatzailea indartu beharko du, jendea ikastera, hurrengo
ikastaldian matrikulatzera eta hiztun ahalik eta osoena izatera sustatuz.

**Itziar Villanueva
(AEK) entzuleen
artetik**

Baliteke euskarak eremu berriak irabaztea. Baina nik zalantza handiak
ditut, pentsatzen baitut prestigioa falta duela gure hizkuntzak. Edozein
hizkuntzak, hizkuntza arrotz batek, gureak baino prestigio gehiago duela

uste dut nik. Nire galdera da HABEk edo patronatuak berak ez ote duen gehiagorik egin behar horretan, matrikulazio-kanpainak aldizka-aldizka eginez, esaterako... Bestalde, oso eraso larriak jasaten ditu gure hizkuntzak. Eta hizkuntzaren defentsa horretan agian ez gara ateratzen beste lurraldetan, Katalunian, esaterako, bezain kementsu. Badago, nire ustez, zeregin franko horretan. Mahaigaineratu nahi nukeen beste gai bat da AOI (atazetan oinarritutako irakaskuntza) planteamendua eta AEKn erabiltzen den EGI hori, bakoitza fase ezberdinetan egon arren, funtsean gauza bera direla, nire ustez. Baina ez ditu inork uztartu. Eta, HABEk edo patronatuak izango luke hor zereginik, bakoitza bere aldetik joan ez dadin.

Jokin Azkue

Nik esango nuke euskaltegien sareak biltzeko eta elkarren berri izateko urratsak egiten ari garela. Eta gaur egun hainbat elkargune eta batzorde daude martxan, Batzorde Akademikotik hasita. Egia da hor ez dela bile-ra handirik egiten, hori esan beharra dago. Baina badaude, besteak beste, formazio-plangintzaren inguruan egiten direnak. Lankidetzazabaltzen joatea oso inportantea da euskalduntzean. Denok dakigu euskaldunok gutxi garela. Eta askotan ibili gara zein bere aldetik. Orain mahaian bost saretako ordezkariak daude eserita. Lan-taldeak osatzea behar-beharrezkoa da eta oso onuragarria gai guztiez hitz egitea, ez bakarrik liskarrak daudenean.

Patxi Telletxea entzuleen artetik

Euskaldun osoa eta jatorra dela eta, ni askotan saiatu naiz euskaldun berri horren buruan jartzen. Eta ez da lan makala ikasleak egindakoa. Ikasle hori konturatu da, Iruñeko egoera dut buruan, bi hizkuntza daudela. Bera, gaztelaniaduna izanik, konturatu da badela beste hizkuntza bat, euskara, eta gainera ikastera etorri da. Ez zaio burutik ere pasatzen inoiz erabiliko duenik. Halaxe da nire ustea, behintzat. Ikasiko du eta gero ikusiko erabiltzera ausartzen den. Batzuk EGA atera eta orduantxe hasiko dira euskaldun sentitzen. Baina EGArek jabea izanik ere lehengo lotsa bera, estuasun bera izan dezakete okindegian zerbait euskaraz eskatzera-koan. Zuk lehen esan duzu Iruñera joango bazina ez zenukeela ez zerrendarik ez gidarik beharko. Konforme. Zu euskaldun sentitzen zara, euskal komunitatearen hiztunen partaide sentitzen zara. Baina euskaldundu den ikasleak, euskara linguistikoki dakiela dioten horrek arazoak ditu. Horregatik, irakasleok, hizkuntzalariak behar dugu izan. Zer irakatsi jakin behar dugu. Pedagogoa ere izan behar dugu. Nola irakatsi ere behar baita jakin. Hirugarren adar bat falta da. Soziolinguistik ere izan behar dugu, hau da, ikasleak euskara *non*, *norekin*, *nola*... erabil dezakeen ere jakin behar dugu. Eta, alderdi soziolinguistikoko hori programazioetan sartu behar da, ez bakarrik goi-urratsetan.

Juxto Egaña

Euskaldun osoa eta jatorra terminoei dagokienez, gizarteak erabiltzen duen hizkuntza da eta testuinguru horretan dago erabilia. Ez da hizkuntzalaritzaren hizkuntza. "Oso" esateak kezka bat du alboan. Euskara ikastea ez baita ingelesa ikastea. Esan nahi baita, ezin ditugula erdi euskaldunak egin, dagoen egoera soziokulturala kontuan izanik, bederen.

Beraz, zer esan nahi duen “oso” horrek? Ba, hiru maila daude kurrikulu-
luan. Txikiena, aurreneko maila da eta hortik gora hasiko da ikaslea eus-
kaldun osoa izaten.

-oOo-

Bigarren galderan planteaturiko malgutasuna dela eta hauxe esan zuten
partaideek:

Jokin Nazabal

Normalean aniztasuna edo aipatzen dugunean, beti ikasleen hizkuntz
maila datorkigu burura. Gurea bezalako euskaltegi txiki batean halabeha-
rez gertatzen da, taldeak osatzerakoan, maila ezberdinetako ikasleak
elkartu beharra. Baina aniztasuna ez dago horretan bakarrik eta, nahiz eta
hizkuntz mailaren aldetik ere talde homogenea sortu, badira beste
hamaika gauza aniztasuna dakartenak: ikasleen ikas-estiloa, aurretiko
ikas-esperientziak... talde homogeenarena nahiko utopikoa da.
Aniztasunari erantzuteko lan sistematikorik ez dugu egin, baina bai saia-
tu beharra dagoela gune jakin batzuetan, bederen. Gure ustez, kurrikulu
honek duen alde on bat da pixka bat irekia dela. Gure erronketako bat,
beraz, aniztasun horri ahalik eta ongien erantzuten asmatzea da. Guk
egin ditugun probak nahiko puntualak izan dira, autonomiari lotuak.
Saiatu gara programazioan txertatzen, baina sistematizatu gabe. Saio
horietako bat autoebaluazioa da. Unitate bakoitzaren ondoren ikaslearen
gogoeta bultzatu nahi izan dugu: zer egin duen, nola, ondo egin duen...
Autoebaluazio hori oinarri harturik, ikaslea gero bere kabuz etxean edo
lan egiteko plangintza, alorrez alorrekoa, sortzera sustatzen dugu. Beste
esperientzia bat bigarren mailan burutu dugu batere homogenea ez den
taldean, hizkuntz mailaren aldetik, batez ere. Unitatean bertan ikasleari
ibilbide ezberdinei jarraitzeko aukera ematea edo da kontua. Batez ere
ariketa gramatikalen arloan. Beste probatxo batzuk ere egin izan ditugu.
Entzun-ariketa bat bi eratara lantzeko aukera eskaini dugu, ikasle bakoit-
tzak, bere ikas-estrategien arabera, egokiena iruditzen zaiona har dezan.
Frogarik serioena gramatikaren alorrean egin dugu. Horren haritik, uni-
tate bakoitzaren ondoren nork bere kabuz ikasteko bi orduko saioa bide-
ratzen dugu. Ikasleak bakarrik ikasten du, irakasleak ikasmaterial batzuk
eramaten dizkio eta tutore-lana bere gain hartzen. Ez dago aparteko zail-
tasunik, ikasleek horrela ikasteko ohiturarik eza izan ezean.

Asis Iriondo

Guk ez dugu hain malgu jokatzten. Irakasleek talde bana hartzen dute,
batzuetan homogenea, beste batzuetan heterogeneoa. Urraskako pro-
gramazioa eta eduki estandar batzuk daude. Eta irakaslea programazioa-
ri jarraitzen ahalegintzen da. Horrela lan egiten dugu normalean. Aspaldi
konturatu ginen talde-ikaskuntzan oinarritzen garenez berehala gorabe-
herak sortzen zirela. Talde bat daukazu lehen urratsean, ehun ordu iragan
eta dexenteko aldeak aurkitzen dituzu ikasleen mailen artean. Kezka
horrek eraginda, hasi ginen ikaslearen liburua sortzen. Ikaslearen liburu
bat prestatzen ari gara. Hasierako helburua zen alde horiei aurre egitea,
ikasleari tresna bat eskainiz. Trabak Jokinek esandakoaren ildotik etorri
ziren. Ikasleak beren kasa erabakiak hartzeko ohituta ez zeudenez, ez

zekiten hura nola baliatu. Aitortzekoa da, bestalde, irakasleok ez dugula asmatzen ikasleei banan-banan laguntzen. Ohituago gaude talde osoari irakasten.

Bada beste esperientzia bat. Gizarteak beste bide batzuk eskatzen dituela aipatu ohi dugu, ordutegi ezberdinak, malguak... eta guk gela bat ordenadorez beteta jarri genuen nork bere autoikaskuntza egiteko. Egun osoan zegoen zabalik. BENETAN programa eskaintzen genuen. Baina ez zuen arrakastarik izan. Gure ikasleek taldean aritu nahiago dute eta oso gutxi dira beren kasa ikasi nahi dutenak. Beste aukera bat zen ikasle atzeratuei laguntzeko. Horrelako banaka batzuk hurbildu ziren, baina, oro har, denek nahiago dute taldean irakaslearekin jardun.

Juxto Egaña

Nik zera esan nahi dut kurrikulua martxan jartzearekin urratsen sistema administrazioarekiko harremanetan behintzat desagertu egingo dela eta hipotesi moduan azpimailak ere bereizten ari gara. Orduan 1A eta 1B mailak izango genituzke. Banaketa hori egiaztatu beharko litzateke, noski, eta gero hurrengo mailak. Eta honek badu zerikusirik malgutasunarekin. Urratsen sisteman desorekak ere gertatu izan dira urrats batean edo talde batean zenbaitetan ezin identifika baitateke taldea urrats diferentetako jendea egoten delako.

Alex Vadillo

Autonomia dela eta hainbat kezka baditugu. Behin eta berriro entzuten da ikasleak beren kasa jardutea onuragarria dela, ikasleak prestatu egin behar ditugula beren erabakiak hartzeko, beren ikasteko bidea diseinatzeko eta dituzten beharren inguruan hausnartzeko. Klaseko dinamika bera horri erantzuteko prestatu beharko dugu. Konforme; baina horrek guztiak duen eskakizun-maila handia da. Hor negoziazio-prozesu bat dago edozein momentutan programazioa aldatu ahal izateko prest egotea eskatzen duena. Ebaluazioaren egitekoa ere sekulakoa da... Nik uste dut bi hutsune daudela horren guztiaren aurrean. Alde batetik, prestakuntza behar-beharrezkoa da, orain arteko klase magistralak emateko baino askoz handiagoa. Beste aldetik, baliabideak behar ditugu. Giza baliabideak batik bat. Gaur egun irakasle gehienak eskolak ematen ari dira. Hainbat eta hainbat eskolasaio egin behar izaten dute egunean, eta saio horiek prestatzeko hainbat ordu dauzkate. Nik uste dut hor ere aurrerapausoak eman beharko direla.

Joseba Ezeiza

Alexen hariari heldurik, kontu berbera azpimarratu nahi genuke. Egin ditugun esperientziak ere pozgarriak izan dira. Baina horrek denak badu kostu bat ordutan, prestakuntza eskatzen du. Azkenean, pentsatzera iristen zara ez ote den planteamendu elitistegia, bakar batzuek, beren egoe-rarengatik, esperimendu bezala egin dezaketena. Oso emaitza interesgarriak ematen ditu, baina baliabideak ere galga berean behar ditu izan. Nire ustez, batez ere giza baliabideak behar dira eta horren atzean baliabide ekonomikoak. Bestela osoa zaila da ikasleen autonomia azken muturreraino eramatea. Eta hori esaten dudanean, ez dut buruan ikasle bakoitzak nahi duena eska dezala. Zentro bakoitzak bere markoa taxutu

eta horren barruan aurreikusi beharko du zer eskain diezaiokeen ikasleari. Bestetik, beti geldituko dira marko horretatik kanpoko helburuak eta horiei erantzuteko bestelako zerbitzuak: orientazio-zerbitzua, tutoretza-zerbitzua, autoikasketa-gela... Aipatua da, bestalde, azterketek sor dezaketan distortsioa, batez ere kurrikulu-eredu hauek ez datozelako oso bat azterketa-ereduarekin. Gure kasuan esperientzia bat egin dugu azterketa klasetik bereiziz. Aparteko zerbitzua eskaini diegu ikasleei azterketak prestatzeko. Hots, azterketaren dinamika ezagutzeko, hainbat azterketa-ariketatan apur bat trebatzeko... Egia esan, emaitzak oso onak dira, bai ikasleen arrakastaren aldetik eta bai ikasgelako giroan sumatzen den aldaketaren aldetik. Esperientzia honek pentsarazi digu gelako beste elementu distorsionatzaile batzuk ere arindu ditzakegula horrela, oso ikas-estilo bere-bereko ikasleei itenbidea eman, etab...

Joanba Bergara

Eta nola bideratzen duzue errekupeazioa?

Joseba Ezeiza

Ez dugu horretarako plangintzarik. Badakit BERTANeko zentro handietan plangintza berariazkoak daudela. Baina gurean ez dago halakorik.

Joxin Etxezarreta

Gurcan, berriz, unibertsitatearen barruan egonik, arazoak izaten ditugu inguru akademiko formal horretan maila ezberdinetako jendea elkarrekin egoteko. Planteatu izan dugu maila ezberdinetako jendea talde berean aritu beharra, batez ere azken eskolorduetan, irakasleen tutoretzapean. Beti izan dugu buruan autoikaskuntza-gela, maila ezberdinetako jendea aritu ahal izatekoa, ordenadoreekin... Baina lan handia egin beharko da programa egokiak sortzen.

Asis Iriondo

Ez dut inoren adorea galarazi nahi. Agian ohiturarik ezaren ondorioa da, baina guk ez dugu horretan asmatu. Gure ikasleek talde-ikaskuntzarekin identifikatzen baitute euskaltegia. Saiatu gara batera eta bestera. Ideia polita da, Jaurilaritzan bertan programarekin eta tutoretzarekin askoz ere hobeto moldatu ginen, agian lantokian bertan egiten zutelako, tutorea joaten zelako... baina gurean geure ikasle tipologiagatik edo ez dugu asmatu. Ez dut esan nahi talde-ikaskuntza modu bakarra denik baina gauzak esaten ditugunean ere gero zehaztu beharra dago.

**Abel Camacho
(Santurtziko
Udal-euskaltegia)
entzuleen artetik**

Autonomiaren kontzeptura itzuliz, askotan iruditzen zait kontzeptu handiosoekin gabiltzala. Ikasle zeharo autonomoa dugu amets, bere ikasprozesu osoa arautzeko gai dena. Xedea horixe izan daiteke, baina autonomia nik behintzat bi alderdi ikusten ditut: komunikazio-estrategien garapena eta alde horretatik egin daitekeen autonomia, eta, bestetik beste maila batean ikaslearen prestutasuna. Askok ez dauka behar besteko trebeziarik ikasprozesua planifikatu, ebaluatu bitarteko helburuak ezarri... Eman diezaiegun garrantzia komunikazio-estrategiei eta, horiek garatu edo indartu ahalean, has gaitezen bestearekin. Baliteke kurrikulua erasokorra eta norberaren mailakoa izatea, baina ez dezagun pentsatu

autonomia bat-batean lortuko duenik. Ohitu egin behar ditugu ikasleak agian ez dituzten ikas-estilo batzuetara.

Jokin Nazabal

Kontuan izan behar dugu ikaslea euskaltegia datorrela; hori ere erabaki autonomoa izan da, ez da bere kasa helburuak jartzen eta ikasten hasi. Kontuan izan behar dugu orduan autonomiaz esaten duguna. Ez gara ikasle erabat autonomoa planteatzen ari. Laguntza behar du eta ez du berak bakarrik dena egingo.

**Abel Camacho
entzuleen artetik**

Iruditzen zait azken boladan autonomiaren kontzeptua noiznahi entzuten ari garela eta beldur naiz ez ote den oso urrutiko xedea, utopiaren parekoa. Badaude bitartean eman beharreko pausoak eta jaso beharreko ohitura berriak nire ustez.

Joseba Ezeiza

Ni oso konforme nago horrekin. Bide egokia dela eta bere fruituak ematen dituela uste dut. Horrek ez du kentzen gure helburu kurrikularretan autonomia goi samar jartzea. Alegia, gure ikasleak benetako euskaldunak izango badira, prozesua bukatu ondoren gaitasuna izan behar dute bizitzan sortzen zaizkien behar linguistiko berriei aurre egiteko.

Alde horretatik, uste dut prozesuaren bukaerari begira jarri behar dugula jomuga altu samar eta noski gure lana da hori bideratzea, hori hasieratik aurreikustea eta urrats horiek egiten laguntzea, baina ezin dugu pentsatu ikasleek urtero euskaltegia itzuli beharko dutenik bestela...

**Patxi Telletxea
entzuleen artetik**

Bai, utopikoegia izan daiteke, baina ikasle batzuk zur eta lur gelditzen dira tutoretzan hasten zarenean eta esaten diezunean “zuk nola ikasten duzu?”, esango didazu astean zenbat denbora ematen diozun euskarari? “Ikasle askok esaten dizu “Zer axola zaizu zuri?”. Aspaldiko irakaslearen kontzeptua dute. Beraz, autonomo izaten ere erakutsi behar zaio. Berak ere gogoetatu behar baitu nola ikasten duen, zenbat ordu sartzen dituen, ze baliabide erabili beharko dituen, etab...

**Aitziber San
Roman (Pasaia)
Udal-euskaltegia)
entzuleen artetik**

Negoiazio hitza ere azaldu da... nik behintzat ez nioke inori galdetuko zenbat denbora ematen duen euskara ikasteko. Eta arrazoi emango diot baldin eta axola ez zaidala erantzuten badit. Galdera da gakoa... “agian ez da nahiko denbora zuk dituzun espektatibak asetzeko” eta hor dago, nire ustez, problemetako bat. Nik galdetzen dudanean “zer nahi duzu?, eta zertarako?” nire esperientziak erakutsi dit zer ez duten nahi oso ondo jakin arren, ez daukatela horren argi zer nahi duten.

Joseba Ezeiza

Baduzu arrazoi-puntua, baina tutoretza eta orientazio-zerbitzuen arrakasta aurrera egiteko biderik errazena zein den aurkitzeari zor zaio. Korapilatsua da. Bitarteko pedagogiko arruntak daude, irakaslearen eta ikaslearen arteko harremana, zer galdetu eta zer ez zuk aipatu duzu eta, batez ere, jarrera. Gure jarrera-kontua, nire ikuspegitik, ez da “Ikas ezazu

autonomoa izaten”. Hauxe esan dakioke horren ordeztu “Ikasi behar duzu, aurki ezazu autonomoago izatearen plazerra, balioa eta, nahi baduzu, horretaz baliatu”, eta taldean bakarrik aritu nahi izatea eta irakasleari modu tradizionalen begiratu nahi izatea da autonomia horren barruan aukeretako bat. Eta, agian, ikasle batzuentzat horixe da egokiena.

Alex Vadillo

Negoiazioaren inguruan, egia esan, ez dago sekreturik. Makina bat inkesta ikusi ditut... baina ez badago gero beraiekin hitz egiteko aukerarik... eta hitz egin behar da, asko gainera. Negoiazioaz nahi duzuna esango duzu, baina egunero ari gara egiten eta konturatu baldin bazara ikasleek zer ez duten nahi lehenengo pauso bat da. Ea hortik aurrera badagoen egiterik.

-oOo-

Horra hor, bada, han entzun eta lerro hauetara ekarritako gogoetak. Bi ordu luzez aritu ziren mahaikoak eta entzuleetariko batzuk ere gaiaren inguruan. Ordutegia ordutegi, hainbat eta hainbat gai jorratu gabe gelditu ziren. Hala ere, helduen euskalduntze-alfabetatzean dihardutenen kezka, iritzi, irtenbide eta proposamenen berri jakin nahi duenak badu hemen zer aztertu.